

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA 2010



Martxoaren 5ean, ostirala, 21:00etan:

AFARIA, Buztina jatetxean. 25 €. **Izena ematea: udaletxean edo kiroldegian martxoaren 3a arte.**

Martxoaren 8an, astelehena, 18:00etan udal areto nagusian:

“EMAKUMEAK, ISILPEKO URTEAK” PROIEKZIOA, 40 minutukoa.

Menpekotasuna erabatekoa zen hirurogeita hamarreko hamarkadara arte. Emakumeak, lehenengo aitarekin, geroago senarrarekin, derrigorrezkoa zuen gizon baten baimena kontu korronte bat zabaltzeko, etxe bat erosteko... nahiz eta gaur egun adibide hauek ulertezinak izan.

Emakumeak gizartean eman dituen aurrerapausuak aztertzen ditu dokumental honek, eta isilpeko garaietan bizitako hainbat emakumeren testigantzak biltzen ditu: Toti Martinez de lezea, Arantxa Urretabizkaia, Jone Goirizelaia, Txaro Arteaga, Amaia Zubiria....

Bestalde, udalak jakin nahi du zein interesa dagoen **EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA IKASTAROA** antolatzeko. Ikastaroa Bizkaiko Emakumeen Asanbladako emakume batek emango luke, eta 8 ordukoa izango litzateke, larunbat batean. Taldea osatzen bada, bilera bat egingo dugu eguna finkatzeko.

- ◆ Eraso sexisten aurrean defendatzeko teknika fisiko eta psikologikoak
- ◆ Emakumeak norberarengan segurtasuna eta konfidantza landu
- ◆ Erasoen aurrean autoestima eta elkartasuna handitzea, askotan emakumeei egozten zaizkien errudun sentimenduak landuz

Interesa duenak izena eman dezake udaletxean edo kiroldegian, martxoaren 8a arte.

ETA IGANDEAN, MARTXOAK 7, LILATOIA DONOSTIAN

ANIMA ZAITEZ PARTE HARTZEN!

EMAKUMEON MUNDU MARTXA EUSKAL HERRIAN

2010 arrazoi ditugulako martxan jartzeko!

Martxoaren 8tik 13ra zeharkatuko du Euskal Herria

TOLOSAN, martxoaren 11n